

## Abuztuaren 15ean MARIA BIRJINA DOHATSUAREN ZERURATZEA

### Agurra

Maria Birjina, Bere Ama, zerura jaso duen Kristoren bakea eta maitasuna izan bitez zuekin.

### Sarrerako oharpena

Ama Mariaren zerura jasotzea ospatzen dugu Abuztuaren erdi honetan. Denontzat hitz eman zuena Amarengan bete du Kristo Jaunak eta horrek gure itxaropena sendotzen du, gure fedea indartzen. Ospa dezagun bihotzez festaburu eder hau.

### Damu-otoitza

Isilune bat egin dezagun, eta sar gaitezen geure baitan, Aitaren errukia gozatzeko.

- Jesus Jauna, zeure Ama zure ondora eraman nahi izan duzuna. Erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, zeure burua eskaini diguzuna. Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, Aitaren eskuinaldetik Ama Mariaren aintza erakusten diguzuna. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira

### Otoitza

**Jainko ahalguztidun betierekoa,  
zeruko ospera eraman zenuen, gorputz eta arima,  
Maria Birjina Sortzez Garbia, zeure Semearen Ama;  
egizu, goiko ondasunak bila ditzagula beti,  
zeruko ospean parte izan dezagun harekin.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

**Hitzaren liturgiari oharpena**

Jainkoaren Hitzak gizakion bokazioa, egitekoa argitzen du. Mariak bete-betea bereganatu zuen Jainkoaren Hitza, entzule leial izanez, Jaunaren nahia betez eta gauza guztietan bihotz garbiko izanez. Geu ere, Hitzaren entzule apal egin gaitezten, Jainkoaren nahia betetzen ikasteko.

**Lehenengo irakurgaia** (*Ap 11, 19a; 12, 1. 3-6a. 10ab*)

Apokalipsis liburutik

Ireki zen, zeruan dagoen Jaungoikoaren etxea, eta Haren barruan elkargo kutxa agertu zen. Ikusgarri handia agertu zen zeruan: emakume bat, eguzkiz jantzia eta ilargia oinpeko, eta hamabi izarreko koroa buruan.

Beste ikusgarri bat ere agertu zen zeruan: herensuge gorri handi bat; zazpi buru eta hamar adarrekoa; eta buruetan zazpi koroa zituena. Haren isatsak zeruko izarrek hirutatik bat arrastaka zeramatzan eta lurrera bota zituen. Herensugea, haurra izateko zegoen emakumearen aurrean gelditu zen, jaio orduko semea irensteko.

Emakumeak izan zuen, herri guztiak burdin zigorrez zuzenduko dituen semea; hartu zuten seme hori eta Jainkoaren aulkira eraman zuten. Emakumeak, berriz, ihes egin zuen basamortura, Jainkoak prestatutako leku batera.

Eta oiuhu handi bat entzun nuen zerutik: «Orain etorri da salbamera, gure Jainkoaren indarra eta erregetza, eta Haren Kristoren ahalmena».

**Erantzun-salmoa** (*Sal* 44, 10. 11-12. 16)

Gu - re er-gi - na zu- re eskui-ne - an da - go zu - tik.

Erregeen alabak bidera datozkizu, 'erregina, Ofirko urrez apaindurik, zure eskuinean dago zutik. R/.

Entzun, alaba, eta ikus, aldera ezazu belarrria: ahaztu ezazu aitaren etxe eta herria. R/.

Erregeak zure edertasuna irrikatu du; Bera duzu jaun, egiozu ahuspez agur. R/.

Pozik eta alai dakarte, eta sartzen dira erregearen jauregira. R/.

**Bigarren irakurgaia** (1 *Ko* 15, 20-27a)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei

Senideok: Piztu da Kristo hilen artetik, lo daudenetan lehen fruitu bezala. Izan ere, gizon baten bidez etorri bazen heriotza, gizon baten bidez etorri da hildakoen piztuera ere.

Adamengan guztiak heriotza duten bezala, Kristorengan bizia izango dute guztiak. Baina bakoitzak bere mailan: aurrena Kristok, lehen fruitu bezala; gero, kristau guztiak, Hura berriz etortzean. Ondoren, azkenekoek, Kristok Jainko Aitari erreinua itzultzen dionean, ahalmen, aginte eta indar guztiak ezereztu ondoren.

Berak eduki behar baitu erregetza, Jainkoak «etsai guztiak Haren oinazpian ipini arte». Heriotza izango da, azkenik ezereztuko den etsaia; izan ere Liburu Santuak honela dio: «Guztiak haren oinazpian ezarri ditu».

## Aleluia

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

Maria zeruetara jaso<sub>a</sub> izan da;  
pozik daude aingeruak. R/.

## Ebanjelioa (Lk 1, 39-56)

### Homiliarako argibideak

*Zorionekoa zu, sinetsi duzulako*

Mundu honetan eta bizitza honetan baino ez, gizakiaren **errealizazio osoa** eskaintzea da gaur egungo kulturak kristautasunari botatako erronka handia. Nahikoa du zorion horrekin, eta piztueraren kristau sinesmena bazterten du, ilusio modura. Horregatik eta bitxia bada ere, inkestek erakusten dute espainiarren ehuneko laurogeita hamarrek ia Jainkoarengan sinesten dutela diotela, baina ehuneko berrogeita hamar pasatxo baino direla hil ondorengo piztueran sinesten dutenak. Eta are harrigarriagoa da, oraindik, askok enkarnazioan sinestea, Ekialdeko ideia izaki, gure kulturaren txertatzen joan bada ere.

Gaurko festaburuak kredoaren azken lerroan kokatzen gaitu: sinesten dut haragiaren piztueraren eta betiko bizitza (*1 Ko 15,20-26*). Mariaren Zeruratzeak Jesusen piztuerarekin hasitako **gizaki berriaren** irudia erakusten digu. Ez da supergizaki bat, emakume baten apaltasunean, gure muga eta handitasun guztiak gurekin partekatzen dituen gure

arreban, egia egindako Jainkoaren ametsa baizik.

Zeruratzea bizitza oso baten gorentasuna da, eta Jainkoak ematen du azken ukitua, Amak Semearen ahalik eta antzik handiena eduki dezan eginda, haren misterio guztiakin lotuta egon ondoren. **Fedezko bizitza baten** emaitza da, zentzu batean, horregatik etorri zen Jauna haren barruan bizitzera. Horrek ez zuen bere bizimodu apala aldatu; aitzitik, erromes izan zen beti fedean, bere historia zehatzean denboraren zeinuak bereizten saiatuta.

Fedea izan zen haren zorionaren oinarria (*Lk* 1,39-56). Mariak Jainkoa, Kristo Jesusengan adierazia, jarri zuen bere bizitzaren erdian, eta bere Semearen kausari eskaini zion bere bizitza, gizakiak salbatzeari. Bere burua hustu zuelako bete ahal izan zen azkenean guztiz Jainkoarekin, eta Berpiztuaren loriak eralda zezan utzi. Eraldatze horrek **pertsona osoari** eragin zion, gorputzari zein arimari, bizi izandako historia zehatz guztiarekin.

Lorian goretsitako Maria ez dago bizi jaioberria irenstearekin mehatxatzen duen dragoiaren kontrako borrokaren zailtasunen erdian gaudenongandik gugandik urrun (*Ap* 11,9-12,10) . Erromes dabilen Elizarekiko elkertasunean, beti, **itxaropen keinu** gisa agertzen zaigu guztioi Maria. Gure bizitza ez da heriotzarekin ezerezean amaitzen den alferrikako pasio bat. Gu ere gure gorputzak eta arimak, bizi izan ditugun historiak eta maite izan ditugun errealitate guztiak eraldatuta ikustera deituta gaude. Hori guztia da Kristok hasitako **kreazio berriaren** hazia, Mariarengan ere hazten ikusten duguna.

Eukaristia honetan, poz gaitezen Mariarekin, desiratutako helmugara iritsi baita, eta eska diezaiogun Erreinuaren etorreraren alde lan egitera eramango gaituen itxaropen keinu izateko beti guretzat.

## **Jainkoaren herriaren otoitza**

Senideok, zuzen diezazkiogun Jaunari gure otoitzak, Maria Birjina zeruratu zuela ospatzen dugun egun honetan:

- Elizaren seme-alaba guztiek, Jainkoaren Amarekin bat eginik, Jaunaren handitasuna goretsi eta harengan poztu daitezten.
- Jaunaren errukia bere fededunengana iritsi dadin eta gizaldi guztiak poztu daitezten, Jaunak Mariarengan gauza handiak egin dituelako.
- Jaunak, bere besoaren indarrez gora jaso ditzan ezerezak, ondasunez bete ditzan gose direnak eta lagun biezaio bere herriari gure arbasoei hitz eman bezala.
- Bere Ama Erregina koroatu duen Kristo Jaunak, guri ere eman diezagun egun batean, munduaren hasieratik prestaturik duen erreinua.

Jainko Jauna, Zure Semearen Ama egin zenuen Maria Birjina; entzun gure otoitzak eta egizu, haren laguntzaz, parte izan dezagula egun batean betiereko zorionean. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

## **Jaunartze-ondorengo otoitza**

**Sakramentu salbagarria hartu dugu, Jauna;  
egizu, Maria Birjina dohatsua  
zeruetara jasoaren otoitzari esker,  
piztueraren aintzara irits gaitezela.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**